

# BILBAO, DONOSTIA ETA GASTEIZKO GOTZAINEN ETA EUSKO JAULARITZAREN ARTEKO AKORDIOA TENPLU KATOLIKOETAN COVID-19AREN KUTSATZEA EKIDITEKO ASMOZ HARTUTAKO NEURRIAK EZARTZEARI BURUZ

2020ko maiatzaren 6an

Espainiako Gobernuak “Nomaltasun berrirantzako trantsiziorako egitasmoan” ezarritako oinarri orokorren eta deseskalada delakoaren urratsen markoan, Bilbao, Donostia eta Gasteizko Gotzainek eta Eusko Jaurlaritzak honako neurri zehatz hauek ezagutarazteko akordioa egin dute, tenplu katolikoetan izango diren ospakizun irekietan beteak izan daitezzen.

## 1. Neurri orokorrak

- **ETGB** delako Ohiturak sustatzean gauzatzen den prebentziozko konpromiso soziala bultzatzea, hau da:
  - Eskuak garbitzea, higiena eta desinfekzioa.
  - Taldekatzeak mugatzea.
  - Gertutasunean edota toki itxietan maskara erabiltzea.
  - Bi metrotako distantzia gordetzea.
- Trantsiziorako Egitasmoan aurreikusitakoaren arabera, tenplu bakoitzean jarleku kopurua mugatzea: 1/3 lehenengo fasean eta 1/2 bigarren goan.
- Pertsona adinekoei, gaixoei edo arrisku-egoeran daudenei gonbidapena egitea, aintzat har dezatela ez ote den komeni ospakizun publikoetara itzultzeko aukera atzeratzea.
- Beren lana ospitaletan, egoitzetan zein etxeetan egiten duten osasun-pastoraltzako kideek beharrezko segurtasun-neurriak har ditzaten ezartzea.

## 2. Ospakizunetan hartu beharreko neurriak

- Beharrezko distantzia gorde ahal izateko, eserlekuetan zein toki hartu zehaztea.
- Fededunak elizan segurtasun-neurriak gordez esertzen laguntzeko beharrezko arduradunak izendatzea, sarrera-irteerak ordenatuz eta sarbideetan taldekatzea ekidinez.
- Fededunek ospakizunetan maskarak erabiltzea oso gomendagarria dela kontsideratzea.
- Elizan sartzean eta handik irtetean gel hidroalkoholiko desinfektatzailea eskaintzea.
- Ospakizunean zehar, eta bereziki jaunartzekoan, edonolako kontaktu fisikoa saihesteko behar diren neurriak hartzea. Jauna banatu behar dutenek eskuak desinfektatuko dituzte aurretik eta ondoren.
- Tenpluaren, liturgiako tresnen eta abarren etengabeko desinfekzioa.

### **3. Jarraipenerako eta ebaluaketarako neurriak**

- Neurri hauen aplikazioa eta emaitzak etengabe ebaluatzea.
- Epidemiak herri nahiz bailara bakoitzean, edota bere garapen orokorrean, izan dezakeen eboluzioaren arabera, hala behar izanez gero, neurri hauek egokitzea, berriro ere araudi estuago batera itzuli behar izatea baztertu gabe, osasun-agintariek osasun publikoa bermatzeko hala aginduko balute.
- Agiri hau indarrean egongo da deseskaladak irauten duen bitartean, gero elkarrekin adostuz, baliogabetu, egokitu nahiz luzatu daitekeelarik, epidemiaren eboluzioak sor ditzakeen beharren arabera.